

KANALAK

Gure elkartean bezeroen harremanari dagokionez, kanalen arteko konbinazioa egokiena izango zen, hau da, online bidez eta udaletxean izena emateko aukera egongo da. Hainbat ikastola desberdinetan ere informazioa emango dugu familiei eskaintzeko.

Empresa baten kanalik hoberena aukeratzeko ezinbestekoa da jakitea bakoitzak zein funtzio betetzen duen. Argi dago, kanal bakoitzak abantaila eta desabantaila batzuk izango dituela. Beraz, kanaletan oinarrituta jakin beharra dugu, zuzeneko kanalak, zeharkako kanalak, elkartutako kanalak eta kanal propioak daudela.

Hori gutxi balitz, kontuan izanda zerbitzu batean kanalak desberdinak izan ahal direla, gure zerbitzuak kanal zuzenetaz baliatuko gara zerbitzuaren banaketa kudeatzeko. Horrela, zerbitzuaren sortzaileekin, gurekin, harremanetan jarriko dira eta gu ezagutzeko aukera izango dute. Salmentari dagokionez, ikastetxe desberdinetan informazioa emateaz gain sare sozial batean ere oinarrituko gara, hau da, instagrameko kontu bat egingo dugu. Beraz, bertan egiten dugunaren inguruko informazioa modu erakargarri batean eskaintzeko aukera izango dugu.

Azkenik, zerbitzuak gero eta publizitate gehiago izaten badu, gure negozioak aurrera pauso bat emango duela uste dugu, beraz, ahalik eta leku gehienetan informazioa jarriko dugu. Horregatik, gure bezeroei zerbitzua gustatzen bazaie, beste guraso batzuekin komentatu ahalko dute eta horrela gure zerbitzua ezagunagoa egingo da.